



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 186. INFORMAZIO BULETINA

> 2023ko maiatza



Europar Batasunak  
kofinantzatua

Cofinanciado por  
la Union Europea



> 2023ko maiatza

## ALBISTEAK

### **EGEF Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren 2021-2027 epealdi berriko programaren aurkezpena.**

**Maiatzaren 9an, Europaren Eguna dela-eta, EGEF 21-27 epealdi berriko programaren aurkezpena egin da Aldundian Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritzak antolatuta.**

Aurkezpen horretan hainbat gai jorratu ziren. Alde batetik, aurreko aldietan EGEF funtsekin kofinantzatutako proiektuak berrikusi ziren. 21-27 aldi berriari dagokionez, programak zein inbertsio-lehentasunetara egokitu behar diren aztertu zen, baita gaikako kontzentrazioaren eskakizunak ere. Azkenik, 21-27an kofinantzatu nahi diren proiektuen berri eman zen, bai eta programaren kudeaketari buruzko berrikuntzen berri ere.

Euskadiko 21-27 EGEF Programa joan zen azaroaren 29an onartu zuten Europako Batzordearen zerbitzuek. Onartutako Estatuko lehen hiruretako bat izan zen, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien kontura 414 milioi euroko inbertsioak egiteko aukera emango du Euskadin, Europar Batasunak % 40an finantzatuta. Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, 40 milioiko inbertsioa gauzatu beharko du 16,6 milioiko laguntza jaso ahal izateko.

Informazio gehiago: [Gipuzkoaren partaidetza EGEFen](#) (PDF).

### **POCTEFA 2021-2027 proiektuen lehen deialdia. Epea zabaltzea.**

**Hautagaitzak aurkezteko epea maiatzaren 31ra arte zabaldu da.**

Hautagaitzak SIGEFA izeneko plataformaren bitartez aurkeztu beharko dira.

Bestalde, ostegunero, 11:00etatik 12:00etara, deialdia amaitu arte, online topaketak (POCTEFA responde izenekoak), egingo dira proiektuen lehenengo deialdiari buruzko zalantzak planteatzeko. Horietan, Programaren Idazkaritza Bateratuak proiektuen bazkide izan daitezkeen zalantzak erantzungo ditu, eta horiek zuzenean bidali ahal izango dituzte galderak, idatziz, slido aplikazioaren bidez. Saioak elebidunak izango dira eta galdera egin den hizkuntza berean erantzungo da.

Ez da beharrezkoa izena ematea, esteka honen bidez baino ez da konektatu behar:

<https://us06web.zoom.us/j/84399953519>

Orain arte 4 topaketa egin dira eta bideoak webgunean daude.

Informazio gehiago: [POCTEFArako esteka](#) (gaztelaniaz).



> 2023ko maiatza

## Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak 2023ko Ikus-entzunezkoen Sariaren deialdia egin du.

«Euroeskualdeko animazioari» bideratutako saria Next Lab Finance & Tech-en izango du emanaldia, Iruñean, 2023ko ekainaren 28tik 29ra.

- Epea: 2023ko apirilaren 28tik maiatzaren 30era.
- Hautaketa: 2023ko ekaina.
- Pitching saioa: 2023ko ekainak 28.
- Sari irabazlea: 6.000 €.
- Sari finalistak: akreditazioa eta ostatua.
- Harrera jaialdia: Next Lab Finance & Tech.
- Bazkideak: enpresa ekoizleak.
- Generoa: animazioa.
- Proiektu hautagarriak: miniserieak, telesailak, film laburrak, film luzeak.

2021ean hasi zen saria, eta Euroeskualdeko ikus-entzunezkoen sektorea sustatzea du helburu, hiru lurraldeetako industria, talentuak, tokiak, hizkuntza, historia eta gainerako aberastasunak eta horien eragileak balorizatuz.

Euroeskualdeak lantalde bat osatu du ikus-entzunezkoen arlorako, elkar ezagutzeko eta kultura zabaltzeko.

Gobernuen eta lurraldeko kultura-agentzien helburua da eremu horretan dituzten eskumenak partekatzea, euroeskualdean ikus-entzunezko koprodukzioak sustatzeko, eta eragile desberdinei aukera berriak eskaintzeko.

Taldean honako hauek daude ordezkatuta:

- Akitania Berria – Euskadi- Nafarroa Euroeskualdea.
- Akitania Berriko eskualdea.
- Akitania Berriko Zinema eta Ikus-entzunezkoen Agentzia (ALCA).
- Eusko Jaurlaritza.
- Zineuskadi.
- Nafarroako Gobernua.

Beren lanaren zati gisa, honako hauek antolatzen dituzte:

- Mahai-inguruak edo hitzaldiak lurraldeko jaialdien esparruan.
- Lanbide-topaketak.
- Koprodukzio-gidaren edizioa.
- Ikus-entzunezko saria.

Informazio gehiago: [EUROESKUALDERako](#) esteka.



> 2023ko maiatza

### #EuropaSentitzenDa proiektu lehiaketaren deialdia egin da.

**Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Europako Funtzen Zuzendaritza Nagusiak antolatzen du, eta eskaerak 2023ko ekainaren 23ra arte aurkeztu ahal izango dira.**

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Europako Funtzen Zuzendaritza Nagusiak Europako Funtzen Urteko Komunikazio Lehiaketa antolatu du aurten ere. Lehiaketaren helburua da Europako funtsek Espainian ematen duten laguntzaren emaitzei eta balio erantsiari buruz herritarrak gehiago kontzientziatzea eta ikusaraztea. 2021-2027 programazio-aldiaren inaugurazioa aprobetxatuz, aurtengo ediziotik aurrera lehiaketari ikuspegi plurifondoa emango zaio, kudeaketa partekatuko funts europarren finantzaketa jaso duten proiektuak hautatuz, sarituz eta komunikatuz. Horrela, EGEFen proiektuez gain (Europako Lurralde Lankidetzaren helburua barne), funts hauekin batera finantzaturako proiektuek parte hartu ahal izango dute: EGIF, FSE+, FSI, IGFV, FAMI, FEMPA, FTJ, FEADER eta FEAGA.

Lehiaketara aurkeztu diren proiektuek kategoria hauetakoren batean aurkeztu beharko dute:

1. #EuropaSentitzenDa Lehiakor
2. #EuropaSentitzenDa Berde
3. #EuropaSentitzenDa konektatuta
4. #EuropaSentitzenDa Sozialki
5. #EuropaSentitzenDa Hurbil
6. #EuropaMugitzenZaitu

Lehiaketa hiru fasetan egituratuko da, **oinarrietan** deskribatzen den bezala, eta irabazleak 2023ko irailaren 22an, ostirala, Vilagarcía de Arousa (Pontevedra) auditorioan egingo den azken fasearen amaieran iragarriko dira, 2023ko Urteko Komunikazio Ekitaldiaren barruan.

Informazio gehiago: **sarietarako** esteka (gaztelaniaz).



> 2023ko maiatza

## EUROPAKO DEIALDIAK

### ***NEXT GENERATION FUNTSEKIN FINANTZATUTAKOAK***

Oinarri arautzaileak ezarri dira, eta 2023. urterako deialdia egin da, toki-erakundeetan gaikuntza digitaleko zentrozen estatuko sare bat sortzeko, Europar Batasunak finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (Next Generation EU). Eskabideak aurkezteko epea 2023ko ekainaren 8an amaituko da.

Energia geotermiko sakona aprobetxatzeko proiektuen bideragarritasun-azterketak egiteko laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dira, Europar Batasunak finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (NextgenerationEU). (Geotermia sakona programa).





> 2023ko maiatza

## BESTE DEIALDIAK

### Asilo, Migrazio eta Integrazio Funtza.

- [AMIF-2023-TF2-AG-CALL-](#)
  - 01. SPONSORSHIP. Babes komunitarioko eta babesa behar duten pertsonen integrazioko programak sustatzea.
  - 02. LOCAL. Integrazioa eta inklusioa eskualde- eta toki-mailan.
  - 05. PATHWAYS. Hezkuntzari eta/edo lanari lotutako ibilbide osagarriak sustatzea.
  - 04. LABOUR. Etorkinak lan-merkatuan integrazteko interesa duten alderdi askoren ekimenak.
  - 06. CHILDREN. Nazioz gaindiko ekintzak, estatu kideei laguntzeko haurrak migrazioan babesteko arloan.
  - 03. EDUCATION. Haur eta gazte migratzaileak hezkuntzan integratzen laguntzea.

### Herritarrak, Berdintasuna, Eskubideak eta Balioak programa.

- [CERV-2023-CHAR-LITI-](#)
  - SPEECH: EBren balioak eta eskubideak babestea, gorrotora bultzatzearen eta gorrotoak eragindako delituen aurkako borrokaren bidez.
  - LITIGATION: Auzi estrategikoetarako laguntza.
  - CHARTER: Gaitasunak garatzea eta EBko Oinarrizko Eskubideen Gutunari buruz sentsibilizatzea.
  - CIVIC: Eskubideak eta balioak sustatzea, eremu zibikoa ahalduntzearen bidez.
  - WHISTLE: Salatzaileak babesteko ingurune egokia sustatzea.

### Europa Sortzailea programa.

- [CREA-MEDIA-2023-TVONLINE-](#) Hedabideen azpiprograma. Telebistarako eta Interneterako edukietarako laguntzak.

### Europako Parlamentua (EP).

- [EP-LINC-SUBV-2023-CONF-INT-](#) Hitzaldien interpretazioa.
  - Hitzaldiak interpretatzeko master edo graduondoko ikastaroak antolatzea.



### > 2023ko maiatza

- Maisutza, graduondoko edo lizentziaturako ikastaroak antolatzea (Europako Parlamentuan eta EBko erakundeetan ukrainerak dituen lehentasunezko beharretarako garrantzitsuak).
- Bikaintasuna sustatzea hitzaldi-interpreteten prestakuntzan, unibertsitateen arteko lankidetzara bere eremuko garapen teknikoaren prestakuntzan eta ikerketan. Beste proiektu batzuk.
- **EP-COMM-SUBV-NAT-E-2023-** 2024ko Europako hauteskundera begira, komunikazioaren arloan herritarrek parte hartzeko ekintzak kofinantzatzea.
  - CHANGE-MAKERS: Aldez aurretik together.eu komunitatean erregistratutako aldaketa-eragileen partaidetza-ekintzak.
  - CIVIL-SOCIETY: Gizarte zibilak oro har parte hartzeko ekintzak.

### Erasmus Plus programa. Kirolaren azpiprograma. Aktibo Izan, BeActive sariak.

- **ERASMUS-SPORT-2023-BE-ACTIVE-AWARDS-**
  - GEN: Belaunaldien arteko kirolari buruzko saria.
  - HERO: Kirola tokian-tokian sustatzeagatiko saria.
  - WORKPLACE: Lantokiari lotutako kirol-jardueren adibideen saria.
  - EDU: Hezkuntzaren arloko kirolarentzako saria.

### Europako Gizarte Funtza Plus.

- **ESF-2023-ETS.** Pentsioen Jarraipenerako Europako Zerbitzua ezartzea.

### Batasunaren iruzurraren aurkako programa.

- **EUAF-2023-TRAI-** Prestakuntza-azpiprograma.
  - Prestakuntza-saio espezializatuak.
  - Hitzaldiak, tailerrak eta mintegiak.
  - Langile-trukeak.
  - Zuzenbide konparatuko azterlanak eta aldizkako argitalpenak.

### Horizonte Europa berrikuntzako esparru-programa.

- **EARASHI.** Adimen artifizialeko eta robotikako aplikazioak, segurtasunera eta pertsonengana bideratutako industria baterako. Lehenengo deialdi irekia.



### > 2023ko maiatza

- **HORIZON-CL4-2021-HUMAN-01-21. Hungry EcoCities**. Apetitu ekologikoa duten hiriak. Kontsumo arduratsuaren alde eta xahuketaren aurkako sektore akademiko, teknologiko eta elikaduren arteko lankidetzarako deialdia.
- **HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITURBANMOBILITY**. Hiri-mugikortasuna. Teknologiaren Europako Institutua (EIT) eta haren Berrikuntza eta Ezagutza Erkidegoa (KIC). RIS Education-en (Hezkuntza arloko Eskualde Berrikuntzako Eskeman) neguko eskolarako deialdia, lizentziaturako ikasleentzat.
- **ERC-2023-ADG**. Europako Ikerketa Kontseiluaren beka aurreratuak (ERC).
- **HORIZON-JU-CLEAN-AVIATION-2023-02-**. Aeronautikaren hobekuntza ekologikoei buruzko I+Gko lerroetarako laguntzak.

#### *Koordinazio- eta laguntza-ekintzak (CSA).*

- CSA-01: Abiazioaren teknologiaren eta klimaren inpaktua monitorizatzeko metodologia.

#### *Eskualdeko hibrido elektrikoak (HER): teknologia disruptiboak.*

- HER-01: Fuselajearen diseinu berritzailea eskualdeko aireontzi hibrido elektrikoentzat.
- HER-02: Eskualdeko aireontzi hibridoak eta elektrikoak diseinatzeko plataforma digital irekia.

#### *Hidrogeno bidezko abiazio propulstaketa (HPA).*

- HPA-01: Hidrogenozko erregai-sistema, zuzeneko errektuzako motorren lurtean probak egiteko eta hegaldi-probak prestatzeko.
- HPA-02: Aireontzietarako hidrogeno likidozko erregaia banatzeko sistemen teknologiak, zuzeneko errektuzako aplikazioetarako.
- HPA-03: Hidrogenoz propulstaketa aireontzietarako hainbat megawatteko erregai-pilako propulsiio-sistema.

#### *Luzera txiki eta ertaina (SMR): teknologia disruptibo eta ultraeraginkorrak.*

- SMR-01: Propulsiio-sistemetakoko heltze-maila teknologiko handiko hegaldiak erakusteko bitartekoak.
- SMR-02: Ultraerrendimenduko eta integratutako teknologiak.
- SMR-03: Kabinaren eta kabinako sistemen integratutako aurreratu hidrogeno bidez propulstaketa aireontzientzat.

### **Merkatu Bateratuaren Programa (SMP). Enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna (COSME).**

- **TourINN-act**. ETE turistikoak berritzeko deialdi irekia. SMP eta COSMEren arlokoa.
- **SMP-COSME-2023-EYEUA-01**. Erasmus beka Ukrainako gazte ekintzaileentzat.

#### **SMP-COSME-2021-CLUSTER-01.** SMP eta COSMEren klusterretarako deialdiak.

- **CREATHRIV-EU**. SMP eta COSMEren klusterretarako deialdiak. Sortzen ari diren sormen- eta kultura-industrien Europako klusterrak. - ETEei finantza-laguntza emateko 1. deialdia.





### > 2023ko maiatza

- **IKAT**. SMP eta COSMEren klusterretarako deialdiak. IKAT Turismo deialdia Europako ETEentzat. Klusterizazio-ekimena, bereziki itsas eskualdeetan, turismoaren mendekoetan eta pandemiaren eraginpean daudenetarako bideratua.
- **DREAM**. SMP eta COSMEren klusterretarako deialdiak. Manufaktura aurreratuko Europa Digital eta Erresilienterako ekimena den DREAM berritzeko deialdi irekia.

### SOCPL programa, Gizarte Prerrogatiba eta Berriazko Gaitasunen Lerroak.

- **SOCPL-2023-INFO-WK**. Langileen erakundeentzako informazio- eta prestakuntza-neurriak.

### Herritarrak, Berdintasuna, Eskubideak eta Balioak programa.

- **CERV-2023-CITIZENS-REM**. Hurrengo epea: 23.06.06. Europako Memoriari buruzko 2023ko deialdia: totalitarismoak eragindako gaitzei buruzko proiektuak, demokraziarako trantsizioei buruzkoak, deskolonizazioa, Europako integrazioa, migrazioei buruzkoak, etab.

### Europa Sortzailea programa: ikus-entzunezko lan-sorten garapena.

- **CREA-MEDIA-2023-DEVMINISLATE**. Hurrengo epea: 23.06.01. Ikus-entzunezko lanen multzo txikiak garatzeko laguntza, sortzaileentzako merkaturatze gisa.

### Erasmus Plus programa. Bokaziozko prestakuntza-zentroak.

- **ERASMUS-EDU-2023-PEX-COVE**. Hurrengo epea: 23.06.08. Bikaintasunerako Elkartea - Bokaziozko Bikaintasun Zentroak.

### Europako Gizarte Funtsa Plus. EPOCH: etxegabetasunaren aurkako plataforma.

- **ESF-2023-EPOCH**. Hurrengo epea: 23.06.06. EPOCH (etxegabetasunaren aurka borrokatzeko Europako plataforma) babestea.

### Horizonte Europa berrikuntzako esparru-programa.

- DANUBE4all ekimena – Danubio arrokoen eskualde lankideentzako deialdia. Ur gezaren kudeaketa. Horizon misioa ozeano eta uretarako. **HORIZON-MISS-2021-OCEAN-02-02**.
- SOIL Nekazaritzako Lurren Europako Programa Bateratuaren (EJP SOIL programaren) azpiegitura teknologikoetarako sarbidea. **LC-SFS-20-2019**.
- Adimen Artifizial Seguru eta Babesturako Itsasargi Europarra (ELSA). Industria-proiektu berritzaileak. **HORIZON-CL4-2021-HUMAN-01-03**.



### > 2023ko maiatza

- FAIR-IMPACT deialdia. Datuen kudeaketaren automatizazioari lotutako FAIR printzipioen aplikazioak (aurkigarritasuna, irisgarritasuna, elkarreragingarritasuna eta berrerabilgarritasuna). Horizon berrikuntza-esparruko azpiegituren atala. Garapen, teknologia, zerbitzu eta zientzia irekiko EOSC sare europarraren azpiatalak. [HORIZON-INFRA-2021-EOSC-01-05](#). Hurrengo epea: 23.06.01.
- NGI: Hurrengo belaunaldiko Internet. NGI Search azpiatalaren bigarren deialdi irekia, informazioa bilatzeko berrikuntzei buruzkoa: ahotsarekikoa, lengoai prozesatzea eta bere analisi semantikoa, konputazio soziala, datuen bistaratzea, etab. Horizon berrikuntza esparruko 4 klusterreko teknologia digital sortu berrien eta humanizatzaileen atalen deialdiak (CL4, digitalak, industrialak eta espazialak). [HORIZON-CL4-2021-HUMAN-01-05](#). Hurrengo epea: 23.06.01.
- Procure4Health sarearen deialdia, gizarte- eta osasun-zerbitzuak ematen dituzten erakundeen arteko lankidetzarako. [HORIZON-HLTH-2021-CARE-05-04](#). Hurrengo epea: 23.06.01.
- X2.0 – Nekazaritzako goi-mailako teknologia eta enpresa sortu berrientzako akonpainamendua. Europako Berrikuntza Kontseilua. [HORIZON-EIC-2021-STARTUPEU-01-01](#). Hurrengo epea: 23.06.06.
- Europako Berrikuntza Kontseiluaren Azeleragailu Programa. Aurrez zehaztutako erronkak. EIC Accelerator Challenges. Hurrengo epea: 23.06.07. [HORIZON-EIC-2023-ACCELERATORCHALLENGES-](#)
  01. Biomarkatzaileetan oinarritutako saiakuntza berriak minbiziaren tratamendu pertsonalizatua gidatzeko.
  02. Pandemiak kudeatzeko aerosolak eta gainazalak deskontaminatzea.
  03. Energia biltegitratzea.
  04. Europako Bauhaus berria eta deskarbonizazioaren aldeko arkitektura, ingeniari eta eraikuntza digitalizatzea.
  05. Teknologia kuantikoko osagaiak edo erdieroale berritzaileak.
  06. Teknologia berriak nekazaritza erresilienterako.
  07. Teknologia eta zerbitzu espazial berritzaileak eta bezeroari zuzendutakoak.
- Europako Berrikuntza Kontseiluaren Azeleragailu Teknologikoaren programa, EIC Accelerator Open, erronka berrietarako edo aurrez zehaztu gabekoetarako. [HORIZON-EIC-2023-ACCELERATOROPEN-01](#). Hurrengo epea: 23.06.07.
- Gizarte Berrikuntzako Europako Lehiaketaren (EUSIC) 2023ko sariak. [HORIZON-EIC-2023-EUSIC-PRIZES-04](#).
- Elkartzeko esparru-akordioa (FPA), errendimendu handiko konputazio-ekosistamarako (HPC) eskala handiko ekimen europar bat garatzeko, RISC-Vn oinarrituta (RISC diseinuan oinarritutako hardware libreko jarraibideen multzoaren arkitektura, jarraibide multzo gutxituekin). [HORIZON-EUROHPC-JU-2022-TECH-03-01](#).



### > 2023ko maiatza

- Errendimendu handiko konputazio-aplikazioetarako (HPC) bikaintasun-zentroetarako deialdia, prozesatzeko gaitasun handikoa (exaeskala mailakoa). [HORIZON-EUROHPC-JU-2023-COE-01-01](#). Hurrengo epea: 23.06.08.
- Marie Skłodowska Curie (MSCA) ekintza-programa. MSCAren laguntza-politikaren (FTP, Feedback To Policy) arrakastari buruzko emaitza edo erantzunen azterketak egiteko deialdia. [HORIZON-MSCA-2023-FTP-01-01](#). Hurrengo epea: 23.06.06.

### **Merkatu Bakarraren Programa (SMP). Enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna (COSME). Deialdiak: F2F Health Matters (elikadura osasungarria) eta EENEE (energia-eraginkortasuna Europako EEN enpresa-sarean).**

- F2F Health Matters programa. Elikadura osasungarriaren arloari lotutako ETEak nazioartekotzea, Europako F2F strategiaren arabera (Baserritik Mahaira). [CLUSINT-01-2020](#). Hurrengo epea: 23.06.07.
- Europako EEN - Enterprise Europe Network enpresa-sarearen energia-eraginkortasuneko ekintza. [SMP-COSME-2023-EENEE-01](#).

### **Merkatu Bakarraren Programa (SMP). Enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna (COSME). Klusterizazio-deialdiak (SMP-COSME-2021-CLUSTER-01).**

- [SUAVE](#) deialdia (Hiri-Nekazaritzaren Balioaren Estimulazioa). Hiri-nekazaritza bultzatzea Europan eta munduko beste eremu batzuetan. Finantza-laguntzaren lehen deialdia. Europako ETEak.
- [xBUILD-EU](#) lehenengo deialdia. Ehungintzako ekosistema industrialen ongarritze gurutzaturako dirulaguntzak, teknologia digitalak eta aurreratuak baliatuz Europan erresilientzia berdea eta digitala garatzeko. Hurrengo epea: 23.06.07.
- [EuroBoosTEX](#) berrikuntza bultzatzeko laguntzak. Europako Ekimen Bateratua Ehungintza Industrian, Europa berreskuratzeko, trantsizio digitala eta berdea bultzatuz. Hurrengo epea: 23.06.07.
- [CirclnWater](#) Nekazaritzan eta industrietan ura zentzuz erabiltzeko Berrikuntzarako Europako klusterrarentzako laguntzak.
- [EPICENTRE](#) deialdia, sektoreen arteko balio-kate berritzaile berriak sortzeko sustapen-programa, trantsizio ekologiko eta digital bikoitzean espezializatuak.
- [MedBAN](#) sarea, Mediterraneoeko Ekonomia Urdinaren azeleragailua. [Nazioartekotzeko](#) atala, eta [berrikuntzarako, prestakuntzarako eta trantsizio bikoitzerako](#) atala (ekologikoa eta digitala).
- [METASTARS](#) Programa. Aeronautikako eta defentsako klusterrei laguntzea. Proiektu berritzaileetarako deialdia. Hurrengo epea: 23.06.06.



> 2023ko maiatza

- **Silicon Eurocluster** deialdia. Elektronikako eta softwareko goi-mailako teknologiako Europako klusterra. Prozesuak eta teknologiak ezartzea ekosistema industrial berdeago eta digitalago batean.

## Munduko herrialdeetako laguntza humanitarioko eta garapenerako Europe Aid programa.

- Zambia. Gizarte zibilari eta ingurumen-eskubideei laguntzea. [EuropeAid/175705/DD/ACT/ZM](#). Hurrengo epea: 23.06.08.
- Tanzania. Komunitatean oinarritutako hiri-erlaketak berdea Pemba uharterako hiri-auzo kaltetuetan. [EuropeAid/176583/DD/ACT/TZ](#). Hurrengo epea: 23.06.04.
- Kenia. Gizarte zibileko erakundeek gaitasuna eta ahotsa indartzea, kontuak emateko, gobernantza onerako eta garapen iraunkorrerako eragile independente gisa. [EuropeAid/176736/DD/ACT/Multi](#). Hurrengo epea: 23.06.05.
- Tayikistan . Giza eskubideak sustatzea eta babestea eta gizarte zibileko erakundeek laguntzea beren ekintzetan. [EuropeAid/176805/DD/ACT/TJ](#).
- Siria. Bizibideei eusteko neurri berezia, eskualdeek krisiari emandako erantzunaren esparruan. [EuropeAid/176808/DD/ACT/JO](#). Hurrengo epea: 23.06.08
- Indonesia: gaikako programak gizarte zibileko erakundeentzat, giza eskubideen eta demokraziaren alde. [EuropeAid/176840/DD/ACT/ID](#).
- Jordania. Giza eskubideak, demokrazia eta gizarte zibila babestea. [EuropeAid/177023/DD/ACT/JO](#). Hurrengo epea: 23.06.04.
- Lao Herri Errepublikako Demokratikorako Giza Eskubideen eta Demokraziaren Programa Tematikoa. [EuropeAid/177067/DD/ACT/LA](#).
- Serbia. Giza Eskubideetarako, Demokraziarako eta Gizarte Zibilerako Funtsa. [EuropeAid/177269/DD/ACT/RS](#). Hurrengo epea: 23.06.06.
- Madagascar. Gazte Ekintzarako Funtsa. [EuropeAid/177336/DD/ACT/MG](#). Hurrengo epea: 23.06.02.
- Moldavia. Giza Eskubideei eta Demokraziari buruzko Programa Tematikoa. [EuropeAid/177447/DD/ACT/MD](#). Hurrengo epea: 23.06.05.
- Palestina. Ingurumena eta klima-aldaketa integratzea garapenerako estrategia eta politika nazionaletan. [EuropeAid/177560/DD/ACT/PS](#). Hurrengo epea: 23.06.02.
- Israel. Langile atzerritarren lan-eskubideen babesa sustatzea. [EuropeAid/177694/DD/ACT/IL](#).
- Mongolia. Giza eskubideei eta demokraziari buruzko jarduerak herrialde-mailan, 2022-2024. [EuropeAid/177732/DD/ACT/MN](#). Hurrengo epea: 23.06.06.





### > 2023ko maiatza

- Senegal . EBk gizarte zibilari eta gazteei laguntzea. [EuropeAid/177796/DD/ACT/SN](#). Hurrengo epea: 23.06.06.
- Ipar Mazedonia. Kultura-ondarearen eta ingurumenaren aurkako delituen tratamenduan erakundearen gaitasunak indartzea. [EuropeAid/177857/DD/ACT/MK](#). Hurrengo epea: 23.06.07.

*“EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN” webgunea*